



Artzabalgo gaina izango du jomugan Aritz Munarrizek datorren larunbatean. | Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

infraganti

ARITZ MUNARRIZ

Ergoiena udalerriko Dorrao herriko baserri batean bizi da, baina lagunartea eta bizitza Etxarri Aranatzaren ditu. Beriain eta Andiaren arteko paisaia paregabea du etxea, gogoia beti preso diren minkideekin. Datorren larunbatean Etxarritik Artzabalgo gainera hamabi orduz gora eta behera arituko da lasterketan, erronka latz, solidario eta ederrean.

A rreta piztu du heldu den larunbatean dis-pertsioaren kontra eta euskal presoen askatasuna amets Etxarri Aranatzaren antolatu den erronkak. Herritik Artzabaleraino, Maia-tzaren Lehenean urtero-urtero *meyetza* (zuhaitz moztua) eta ikurrina jartzen diren Etxarriko gain enblematikoraino, hamabi orduz gelditu gabe, herrikide eta kirolari ezberdinak lagun, gora eta behera arituko da Aritz Mu-

narriz Igoa, Dorraon bizi den baina kaleko bizitza Etxarri egiten duen 29 urteko mendi korrikalari prestua. Ibilbideak 6 kilometroko itzulian 500 metro gorako eta 500 metro beherako desnibela du; zehazki, aldapan gora 2,5 kilometro eta aldapan behera 3,5 kilometro egin beharko ditu Aritz Munarrizek. Kamera eta grabagailuen aurrean jartzea kosta egiten zaion Aritzek aipatu digunez, «ez dakit zenbat igoera eta jaitsiera egitea lortuko du-dan, ahal diren guztiak, baina

kontua hamabi orduz geratu ga-be gora eta behera ibiltzea izan-go da». Erronka horretan lagun izango ditu hainbat kirolari, etxarriarrak zein kanpokoak, emakumeak zein gizonak, profesionalak zein afizionatuak, profesional izandakoak zein oraindik gazte kategorietan daudenak. Batzuk goraka ariko dira, besteak, beheraka. Aldarri-kapena eta kirola, erronka eta ikuskizuna, herri giro polit as-koa bermatuta dago beraz. «Herrian denetarik entzuten ari naiz, burutik sano ote nago-

en eta ze erokeria motatan sartu naizen esaten didate batzuek, besteek, aldiz, zenbat igoera lortuko ditudan galdetzen didate. Egindako kalkuluaren gaineko gal-dera asko egin dizkidate eta gehien-gehienek babesa eta ani-moak helarazi nahi izan dizki-date. Eskertzekoa da hori, oso eskertua nago benetan», diosku Aritzek, baso eta mendien er-dian bizi den korrikalari finak. Ia 1.500 metro dituen Beriain mendi dotorearen magalean eta Andia mendilerroaren babesean bizi da Dorraoko baserri batean, aita, ama, amona eta anaiekin. «Ez dakit menditik hain gertu bizitzeagatik den, basoek eta tontorrek osatutako paisaia eder hauek sortzen didaten lilu-ragatik den edo zergatik den, baina urteak dira mendiez dis-frutatzen hasi nintzela. Azken lau urteotan korrikaka ari naiz, eta, egia esan, esplikatu ezin du-dan zer berezi bat sentitzen dut mendian gora eta behera nabile-nean». Eta bakardadean men-dian korrika dabilenean senti-tzen duen horretaz galdetzean, ziplo erantzuten du: «Bizia ema-ten dit, nolabaiteko askatasun zentzu bat». Ez du, ordea, dena ahaztu eta abstrakziora jotzeko tirantzarik korrika ari denean. «Korrikan gauza dezente pasatzen zaizkit burutik; lana, errutina... albora-tzeko une egokia da niretzat. Gurekin momentu hauetan ez dauden pertsonetan pentsatze-ko momentua ere bada». Dagoeneko kirol esperien-tzien bizkar-zorroa aski bete-a du Aritz Munarrizek. Sara Korri-ka Trail, Beriain eta Anbotoko kilometro bertikalak, Zuzenien bertikala, Olatzagutia-Urba-sa, G2 Haundiak, Apuko Long Trail, Zegama-Aizkorri maratoia eta dezente gehiago egin ditu-eta. Baina, agian, orotan kuttunena herriko ferietan Etxarri bertan egiten den Mendira Joan-Etorria lasterketa da, «parte hartu nuen lehen lasterketa izan zelako». Artzabalgo gainak, bestalde, badu Aritz Munarrizentzat xar-ma berezia, «mendian hasi nin-tzenean beti Artzabalera igotzen nintzen, eta leku honek zinez sentimendu apartekoa pizten

du nire barne-erresuman». Ez du, baina, espresuki prestatu erronka hau. Entrenamendu berezirik ez du egin eta janari mailan ere ez du aparteko ahalegirik egin. «Pasatu gabe baina denetarik jaten dut. Kontutan hartu behar da paraje hauetan urtarrilean eta otsailean ezin dela mendian korrika egin, elurra franko baita. Baina maiatzean Zegama-Aizkorri proba egin nuen, eta, hura prestatzeko hartu nuen sasoia baliatuz Beasaingo G2 Haundiak bezalako frogetan hamasei orduz korrika eginez arituta naizela kontuan hartuz, esan daiteke erronka honi begira ez naizela zerotik abiatzen».

Arbizuko fabrika batean eguneroko zortzi orduz tente lan egiteak, bestalde, hankak eta giharrek dezente kargatzen ditu eta astegunetan ez ohi du luze entrenatzeko aukerarik. «Ordu bat edo bi, eta bale». Astebukaeretan, ordea, pasada handiagoa hartu ohi du entrenatzen, baina, aitortzen digunez, «erronka honi begira ez dut plangintza berezirik egin, ez da hori egitea nire asmoa sekula izan».

Gainera, Artzabalera igoera denak ez dira berdinak izango, eta, aurreikusi duenez, ez du erritmo berebean korrika egitearik izango. «Lagunduko nauten kirolarien arabera izango da. Batzuk sasoi betean egongo dira, besteak aspaldi erretiratutakoak izango dira eta denetara moldatzen jakin beharko dut. Alboan paratzen denaren arabera moldatuko naiz, lagun giroari eutsiz, erronkaren helburua bederatzi, hamar edo hamabi igoera lortzen ditudan ikustea ez dela kontuan hartuta». Hori bai, ez du ezkutatzen bere izaera lehia-korra eta hurrengo baterako, zeinek jakin, irekita uzten du apustu zehatzak egiteko aukera. Hots, Etxarritik Artzabalera ino hamabi ordutan hamar igoera baietz! Edo hamaika, hamabi edo dena delakoak! Ikuskizun geratzen da, bada, errepikatze-kotan heldu den larunbateko erronkak hartuko duen forma.

«Nire buruaren kontrako erronka bat egitea betidanik bueltaka ibili da nire baitan»,



Erronka aurrera ateratzeko anaia izan du lagun. | Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

diosku Aritzek. Eta zergatik orain eta honelako bat galdetuta argiro erantzuten du: «Euskal Herrian dugun egoera latza da eta Etxarrin bertan bizi duguna ere ez da batere samurra, zazpi herrikide baititugu espetxeetan eta horietako bat nire txikitako lagun-min handia. Lagun bezala, horixe bizi dudala dispertsioaren joko zikina! Etxarri herri txikia da eta denok ezagutzen dugu elkar, familia batean bezalaxe. Preso dauzkaten etxarriarren hutsunea sumatzen da, hutsune mingotsa da, denborak horitzen duen argazki batetik harago doa. Hutsune sentimendu horretatik ernatu da elkartasuna adierazteko ideia».

Eta behin ideia Aritzen gogoa sustraituta, anaiak «guztia aurrera ateratzen» asko lagundu diola aipatu digu. Baita Etxarriko Sare taldeak ere. Ez baita nola-

nahikoa heldu den larunbaterako prestatu duten egitaraua. Aritzen erronkan, kirolari ezagun andana ariko dira, besteak beste, Aitor Zubieta, Aritz Lasa, Peio Martinez de Eulate eta Oskar Lasa pilotari edo pilotari ohiak, Alex Txikon mendizalea, Gorka Karapeto eta Ekaitz Maiz eskalatazaileak, Goizeder Beltza aizkolaria, Mikel Navarro eskiatzailea, Gorka Verdugo txirrindulari ohi edo Aritz bezala mendi korrikariak diren Alfredo Alonso, Aitziber Ibarbia, Nouredin, Joanes Goitisolo eta Imanol Goñi.

Goizeko zazpietan ekingo dio erronkari gogobihotz Aritzek, eta, hamabi ordu geroago, arratsaldeko zazpietan, akabera emango dio. Artzabalgo mendian magalean bertan paratuko dute «o guinea» eta bertan apartakalekua, zurrupa egiteko barra, musika eta beste izango dira. He-

«Mendian korrika egiteak bizia ematen dit, nolabaiteko askatasun zentzu bat... Dena ahazteko aukera da, baina baita ez dauden lagun presoak gogoan izateko unea ere»

«Etxarrin presoan hutsune mingotsa sumatzen da, eta denborak horitzen duen argazki batetik harago doa; sentimendu horretatik ernatu da menditik elkartasuna adierazteko ideia»

gin kolektiboan. Etxarrin korrika egingo duten bezala, Lasterbidean ekimenak ere babes polita bildu zuen. Bistan da mobilizazio modu honek babesa jasotzen duela, kirolak eta aldarrikapenak, izerdiak eta kausa justu batek atxikimendua batzen dutela. Bereziki gure herri honetan, kirolak eta erronkak duten eraginaren erakusgarri da. Eta presoan egoerak herri psikologian eta norbanakoetan eragiten duen ezinegon edo zirrararen adibide da, gure bihotzetan sartzen den labankada baita.

Ez da gutxiagorako. Urruti gabe, Sakanan bertan, astebururo 10.000 kilometro egin behar baitituzte senide eta lagunak haien seme, anaia, alaba, lehengusu edo lagun presoak bisitatzeke. Diru asko gastatu, istripuak beti mehatxu eta ezinegon eta beldurra altzoan. Baina, dudarik ez, Aritzek egingo duen erronkak berak bezala, Euskal Herriaren luze-zabalean egiten diren milaka ekintza txiki-handiek arindu egiten dute zama hori.

Hitzordua, horrenbestez, jarri ta dago: ekainaren 20an Sakana-ko Etxarri Aranatz herrian. Giro polita, presoan absentsia gertuko presentzian, natura eta erronka, gorputzaldia eta sentimendua bermatuta daude. Hori guztia eta bost zain izango dira, beraz, bertaratzen direnen gustagarri, pertsona eta gustu partikular ororentzat aukeran.

Aritz Munarrirek jarriko ditu gogoa, esfortzua eta izerdia, baina, haren anaiak bezala, herritar talde baten esku-kolpeak posible egingo du amets sortu zen ideiarene gauzapena. Bihotzarekin egindako ekimena, sentimenduak astinduko dituena. Eguraldia eta zortea lagun izan dezatela Etxarrin. Eta zuri, Aritz, animo eta eutsi goiari. Hura ez baita eroriko! •

Mikel Zubimendi